



Euskararen historia

IKASTAROA

Euskararen egiazko misterioa iraupena da, ez jatorria

Urtarrilak 20 - Martxoak 16

Larunbatetan, 10:00etatik 13:00etara

Batzarremuño kulturgunea (Altzo)



Jakin noiztik X. mendera

Urtarrilak 20, larunbata. 10:00-13:00

IRAKASLEA: BORJA ARIZTIMUÑO LOPEZ (TOLOSA, 1986).
DOKTOREA EUSKAL FILOLOGIAN.

«SORIONEKU», «IZIOQUI DUGU», «GUEC AJUTU EZ DUGU»

Koldo Mitxelena (1915-1987) esan omen zuen: "Euskararen egiazko misterioa iraupena da, ez jatorria". Ugariak dira haren jatorriari buruzko mitoak eta hipotesiak, baina izan duen zabalakunde geografikoari eta ahaideei buruzkoak ere. Jakin noiztik hain eta Kristo ondorengo X. mendearen amaieran jarri dugu lehen zedarria, lekukotasunik gabeko garaiko hizkuntzaren ezaugarriez eta haiei antzemateko metologiaren aritzeko.



Euskara, jalgi hadi kanpora, XI-XVIII. mendeak

Otsailak 3, larunbata. 10:00-13:00

BLANCA URGELL LAZARO (GASTEIZ, 1962). DOKTOREA
EUSKAL FILOLOGIAN, UPV/EHU.

«HEUSCARA IALGUI ADI CAMPORA. GARACICO HERRIA BENEDICA DADILA, HEUSCARARI EMAN DIO BEHAR DUYEN THORNUYA. HEUSCARA IALGUI ADI PLAÇARA! BERCE GENDEC VSTE ÇUTEN ECIN SCRIBA ÇAYTEYEN, ORAY DUTE PHOROGATU ENGANATU CIRELA. HEUSCARA IALGUI ADI MUNDURA»

(BERNARD ETXEPARE, 1545)

Nafarroako erreinuaren loraldia eta gainbehera, Iberiar penintsulako erreinuen arteko gatazkak eta Frantziako iraultza ezagutuko dituz aldi honek. Hizkuntza erromanikoaren garatze eta errotze garaia dira, artez, moldez eta legez. Giro nahasi eta zailean, halere, euskara idatziaren aroa zabalduko da XVI. mendean. Iparraldetik dator haizea eta hegoaldera sartuko da denbora aldi honen hondarrean.



Pizkundeak eta atzerakada berria, 1800-1975


Otsailak 17, larunbata. 10:00-13:00

HARITZ AZURMENDI ARRUE (ALBIZTUR, 1991). DOKTOREA
GIZARTE ZIENTZIAN, JAKIN TALDEKO KIDEA.

«EL VASCUENCE NO PUEDE ACOMODARSE A LA VIDA MODERNA (...) BILBAO HABLANDO VASCUENCE ES UN CONTRASENTIDO (...) EL VASCUENCE SE EXTINGUE (...) ENTERRÉMOSLE SANTAMENTE»

(MIGUEL UNAMUNO, 1901)

XIX. mendean zehar, estatu espainiarraren eta frantziarraren erakuntzak, gizartearen modernizazioak eta Karlistaldiak errotik aldatu zuten Euskal Herria, eta euskararen iraupena kinka larrian geratu zen. XIX. mende amaieran eta XX.aren hasieran, ordea, Pizkundeak ortzi-muga berri bat asmatu zuen euskararentzat: noranahiko hizkuntza bilakatzeko. 36ko Gerrak eta Frankismoak loraldi hori eten zuen, baina 60ko hamarkadan, astinaldi sozial, politiko eta kultural betean, susperraldi berria etorri zen.



Euskalgintzaren berregituratzea eta indarberritzea, 1975-2023

Martxoak 2, larunbata. 10:00-13:00

GARIKOITZ GOIKOETXEA ETXEBERRIA (ELDUAIN, 1989).
SOZIOLINGUISTA ETA EUSKARA TEKNIKARIA.

«ARNASA LUZEKO BIDEA DA EUSKARA BIZIBERRITZEA. MENDI IGOERA BATEKIN ALDERA DAITEKE. FRANKISMOA ARTEAN BIZIRIK ZELA, ZIMENDUA JARRI ZUTEN IBILBIDEARI EKITEKO; HIZKUNTZA BERA BATERATU ZUTEN, EUSKARAZKO ESKOLAK SORTU ZITUZTEN UMEENTZAT ETA HELDUENTZAT, ETA BIDERAKO ILUSIOA ETA GOGOA PIZTU ZUTEN»

(GARIKOITZ GOIKOETXEA, 2016)

Frankismoaren amaierarekin, egoera administratibo berria ezartzen da euskararen lurraldean, bakoitza bere aitortza eta eskubide mailarekin. Orokorrean, berreskuratze eta indarberritze aroa biziko du euskarak aldi honetan, batez ere Hegoaldean. Azken hamarkadetan teknologiak izandako garapen azkarrak, globalizazioak eta gertaera sozio-ekonomiko-politikoak, migrazio fluxuek eta abarrek aldaketa handiak eragin dituzte euskal gizartearen eta euskaldun komunitatearen eta, ondorioz, euskararen egoera eta kokapenean.



Nora goaz? Etorkizunera begira MAHAINGURUA

Martxoak 16, larunbata. 10:00-13:00

HIZLARIAK:



IDURRE ESKISABEL LARRAÑAGA (BEASAIN, 1970).
EUSKALGINTZAREN KONTSEILUKO IDAZKARI NAGUSIA.



ENEKO GORRI GANTIER (ANGELU, 1983).
EUSKARA TEKNIKARIA ETA PLAZARA KOOPERATIBAKO KIDEA.



INTZA GURRUTXAGA LOIDI (GETARIA, 1996).
EUSKAL HERRIAN EUSKARAZKO KIDEA.



IÑAKI MARTINEZ DE LUNA (GASTEIZ, 1950).
SOZIOLOGOA ETA GARABIDE ELKARTEKO LEHENDAKARIA.



MODERATZAILEA:
KIKE AMONARRÍ GORRI (TOLOSA, 1961). SOZIOLINGUISTA.

«ASPERTURIK NAGO HIZKUNTZA AMAZONIA EDO BALEAK BEZALA TRATATZEAZ. NOIZ ARTE SEGI BEHAR DUGU AMAZONIA, BALEAK ETA EUSKARA SALBATU BEHAR DITUGULA ALDARRIKATZEN? EUSKARA HIZTEGI ETA GRAMATIKA BAT DAUZKAGUNETIK SALBATUTA DAGO, EUSKARAK EZ DU SUFRITZEN. SUFRITZEKOTAN, EUSKARAZ BIZI NAHI DUGUNOK SUFRITZEN DUGU. GURE HIZKUNTZA KOMUNITATEAREN GEROA DA AUZITAN DAGOENA»

(XAMAR, 2014)

Nondik gatoz? Zer bide egin dugu? Zer ikaskizun ateratu ditugu ibilbide horretan? Nora goaz? Zergatik euskaldun izan? Ba al dute hizkuntza gutxituek etorkizunik? Ba al du euskarak? Zein dira desafiok?... Galdera asko. Gaurko desafiok erantzun eta etorkizun ertain-luzea bisualizatzeko saiakera edo ariketa izango da.

Izena emateko azken eguna: urtarrilak 18.

Izena emateko:

Online: www.galtzaundi.eus

Presentzialki: Altzoko udaletxea eta Galtzaundi Euskara Taldearen egoitza.

Prezioa: 25 euro (Galtzaundikideek 20 euro).

Antolatzaileak:

**ALTZOKO
KULTURA
BATZORDEA**



Laguntzaileak:



**GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN**

